

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

1.894

194/2006 ERABAKIA, martxoaren 21eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Valderejoko Parke Naturaleko patronatuan Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izango duen ordezkaria izendatzen da.

Arabako Foru Aldundiaren ordezkarien izendapena. Aldundi horrek parte hartzen duen organismo, sozietate eta erakundeetan.

Arabako Foru Aldundiak, bere jardunean, zenbait erakunde, elkarte eta entitatetan hartzen du parte.

Valderejoko Parke Naturaleko patronatuaren eraketa arautzen duen irailaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren 782/2003 Erabakiak 2. artikuluan xedatzen du patronatu hori, besteak beste, Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuak, sail horretako beste ordezkari batek eta Nekazaritzako Saileko ordezkari batek eratuko dutela. Egun azken hori izendatu gabe dago.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikulua 9. eta 10. paragrafoetan xedatutakoa kontuan izanik, Diputatuen Kontseiluari dagokio bere ordezkariak hautatzea batzorde, organismo eta erakunde publiko zein pribatuetarako.

Horregatik guztiagatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Valderejoko Parke Naturaleko patronatuan (Erakundeen Erroldako zenbakia: 120) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izango duen ordezkari honakoa izendatzea:

- José Ramón Aguirrezabal Sanz (Abeltzaintza Zerbitzuaren burua).

Bigarren.- Izendapen honen berri ematea Valderejoko Parke Naturaleko patronatuari.

Hirugarren.- Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den eguna gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko martxoaren 21a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBÁ.

Foru Aginduak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1.999

146/2006 FORU AGINDUA, martxoaren 23koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Honen bidez, helbide aldaketa edo famili datuen aldakuntza jakinarazteko 009 eredu onesten da.

Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 48.3. artikuluan ezarri legez, helbidea aldatzen denean, zergapetuek halaxe jakinarazi behar diote Zerga Administrazioari adierazpen idatzia- ren bidez.

Tramite hori errazte aldera, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34 a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, komenigarria omen da eredu normalizatua onestea, zergapeko pertsona fisikoek helbidearen aldaketa jakinarazteko.

Edu bertsuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kudeaketa optimizatze aldera, Zerga Administrazioak zerga horren aitortpenak errazteko, foru agindu honen bidez onetsi gura den ereduari esker, zergapeko pertsona fisikoek famili unitatearen izaeran

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Acuerdos del Consejo de Diputados

1.894

ACUERDO 194/2006, del Consejo de Diputados de 21 de marzo, que designa al representante del Departamento de Agricultura de esta Diputación Foral en el Patronato del Parque Natural de Valderejo.

Nombramiento de representantes de la Diputación Foral de Álava en Organismos, Sociedades y Entidades en las que participa.

La Diputación Foral de Álava, en el desarrollo de su actividad, participa en diferentes Organismos, Sociedades o Entidades.

El artículo 2 del Acuerdo 782/2003, de 30 de septiembre, del Consejo de Diputados, por el que se establece la composición del Patronato del Parque Natural de Valderejo, prevé que el Pleno del mismo estará integrado, entre otros, por la Diputada Foral de Urbanismo y Medio Ambiente, por un segundo representante del mismo Departamento, así como por otro del Departamento de Agricultura, faltando por designar este último.

Considerando que, conforme a lo dispuesto en el artículo 8 apartados 9 y 10 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, corresponde al Consejo de Diputados designar a sus representantes en las Comisiones, Organismos e Instituciones públicas o privadas.

En su virtud, a propuesta del Diputado General y previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Designar como representante del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava en el Patronato del Parque Natural de Valderejo (número 120 del Registro de Entidades) a:

- José Ramón Aguirrezabal Sanz (Jefe del Servicio de Ganadería).

Segundo.- Dar traslado de este nombramiento al Patronato del Parque Natural de Valderejo.

Tercero.- El presente Acuerdo entrará en vigor el día de su aprobación sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2006.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBÁ.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

1.999

ORDEN FORAL 146/2006, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 23 de marzo, por la que se aprueba el modelo 009 de comunicación de cambio de domicilio o variación de datos familiares.

El artículo 48.3 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria, establece la obligación de comunicar el cambio de domicilio a la Administración tributaria por parte de los obligados tributarios mediante declaración expresa al efecto.

Con la finalidad de facilitar dicho trámite y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 34 a) de la Norma Foral General Tributaria, se ha estimado conveniente aprobar un modelo normalizado que podrá ser utilizado por los contribuyentes personas físicas para comunicar el cambio de domicilio.

Así mismo, con el fin optimizar la gestión del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y facilitar la confección de las declaraciones de dicho impuesto por parte de la Administración tributaria, el modelo objeto de aprobación mediante la presente Orden Foral per-

edo osieran eragina duten famili datuen aldaketak jakinarazi behar dituzte, baldin eta zerga horren kudeaketari dagokionez zerga garrantzia badute.

Hori guztia dela bide eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 70.4. artikuluan adierazi bezala, Administrazio publikoek eskabide eredu eta sistema normalizatuak ezarri beharko dituzte, espediente ugari ebaztea dakarten prozedurei buruzkoak direnean, beraz, ondokoa.

XEDATU DUT:

Lehen.- Helbide aldaketa edo famili datuen aldakuntza jakinarazteko 009 eredu onestea.

Helbide aldaketa edo famili datuen aldakuntza jakinarazteko 009 eredu onesten da; eredu foru aginduaren eranskinean dator, eta ale bi dira: bat, administrazioarentzat; bestea, interesdunarentzat.

Bigarren.- Helbide aldaketa edo famili datuen aldakuntza jakinarazteko 009 eredu erabiltzea.

1.- Helbide aldaketa jakinarazteko, zergapeko pertsona fisikoek 009 eredu erabili ahal izango dute zerga helbide berria jakinarazteko.

2.- Famili datuen aldakuntza jakinarazteko erabili ahal izango dute zergapeko pertsona fisikoek 009 eredu, enpresa- nahiz lanbide-jarduerak egiten dituzten edo atxikipena zein konturako sarrera egin beharra dakarten etekinak ordaintzen dituzten kontuan izan barik, baldin eta eredu horren bidez jakinarazi gura badute famili datuak aldatu direla eta aldaketak eragina badu famili unitatearen osieran.

Hirugarren.- Helbide aldaketa edo famili datuen aldakuntza jakinarazteko 009 eredu betetzea.

Orokorrean, helbide aldaketa edo famili datuen aldakuntza jakinarazi nahi duen zergapeko bakoitzak bete beharko du 009 ereduari dagokion jakinarazpena.

Dena den, helbidea edo egoera zibila aldatu dela jakinarazten denean, eta aldaketa horrek eragina badu ezkontide biengan, nahikoa izango da ezkontide bietako batek bete eta sinatzea.

Laugarren.- Helbide aldaketa edo famili datuen aldakuntza jakinarazteko 009 eredu aurkezteko forma eta lekua.

009 ereduari dagokion jakinarazpena inprimakian aurkeztu beharko da Arabako Foru Ogasunaren edozein bulegotan, bai bertara eramanda, bai bulego horietara postaz bidalita.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru agindu honen 1. puntuaren bigarren atalaren harira, zergapeko pertsona fisikoek erabili ahal izango dute helbidearen aldaketa jakinarazteko 009 eredu, enpresa- nahiz lanbide-jarduerak egiten dituzten kontuan izan barik, baldin eta ez bada onartzen arauzko xedapenik foru agindu hau onetsi eta gero, aldaketaren errolda adierazpena aurkeztera derrigortzeko.

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko martxoaren 23a.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

mite a los contribuyentes personas físicas, efectuar la comunicación de variación de aquellos datos familiares que por afectar a la existencia o composición de la unidad familiar tiene una especial relevancia fiscal en la gestión de este Impuesto.

Por todo ello y al amparo de lo dispuesto en el artículo 70.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, según el cual las administraciones públicas deberán establecer modelos y sistemas normalizados de solicitudes cuando se trate de procedimientos que impliquen la resolución numerosa de expedientes,

DISPONGO:

Primero.- Aprobación del modelo 009 de comunicación de cambio de domicilio o variación de datos familiares.

Se aprueba el modelo 009 de comunicación de cambio de domicilio o de variación de datos familiares que figura como anexo de la presente Orden Foral y que consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el interesado.

Segundo.- Utilización del modelo 009 de comunicación de cambio de domicilio o de variación de datos familiares.

1.- Para la comunicación de cambio de domicilio, el modelo 009 podrá ser presentado por los contribuyentes personas físicas que deseen efectuar a través del mismo la comunicación de su nuevo domicilio fiscal.

2.- Para la comunicación de variación de datos familiares, el modelo 009 podrá ser presentado por todos los contribuyentes personas físicas, con independencia de que desarrollen actividades empresariales o profesionales o satisfagan rendimientos sujetos a retención o ingreso a cuenta, que deseen efectuar a través del mismo la comunicación de la variación de los datos familiares que afecten a la composición de su unidad familiar.

Tercero.- Cumplimentación del modelo 009 de comunicación de cambio de domicilio o de variación de datos familiares.

La cumplimentación de la comunicación ajustada al modelo 009 se efectuará, con carácter general, de forma individual por cada contribuyente que desee comunicar el cambio de domicilio o la variación de sus datos familiares.

No obstante, cuando se comunique un cambio de domicilio o de estado civil que afecte a los dos cónyuges, será suficiente para acreditar dicha circunstancia que el modelo sea cumplimentado y firmado por uno de ambos.

Cuarto.- Forma y lugar de presentación del modelo 009 de comunicación de cambio de domicilio o de variación de datos familiares.

La presentación de la comunicación ajustada al modelo 009 deberá realizarse en impreso ante cualquiera de las oficinas de la Hacienda Foral de Álava, bien mediante entrega directa o por correo dirigido a las mencionadas oficinas.


DISPOSICIÓN ADICIONAL

En relación con el apartado segundo punto 1 de esta Orden Foral, el modelo 009 de comunicación de cambio de domicilio podrá ser utilizado por los contribuyentes personas físicas, con independencia de que desarrollen actividades empresariales o profesionales, en tanto en cuanto no sean aprobadas disposiciones normativas posteriores a esta Orden Foral por las que resulten obligados a presentar una declaración censal de modificación.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2006.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava <small>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Salla Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</small>	BIZILEKU ALDAKETAREN EDO FAMILIA DATUEN ALDAKETAREN JAKINARAZPENA COMUNICACIÓN DE CAMBIO DE DOMICILIO O VARIACIÓN DE DATOS FAMILIARES	009
--	--	-----

DOAKIONA / INTERESADO/A:

IFZ / NIF	IZENA ETA DEITURAK / NOMBRE Y APELLIDOS	TELEFONOA / TELEFONO
-----------	---	----------------------

DOAKIONAREN EZKONTIDEA EDO IZATEZKO BIKOTEKIDEA / CÓNYUGE O PAREJA DE HECHO DEL INTERESADO/A:

IFZ / NIF	IZENA ETA DEITURAK / NOMBRE Y APELLIDOS	TELEFONOA / TELEFONO
-----------	---	----------------------

ORDEZKARIA / REPRESENTANTE:

IFZ / NIF	IZENA ETA DEITURAK / NOMBRE Y APELLIDOS	TELEFONOA / TELEFONO
-----------	---	----------------------

EGOITZA FISKALAREN ALDAKETAREN JAKINARAZPENA / COMUNICACIÓN DE CAMBIO DE DOMICILIO FISCAL

Zure ezkontideak edo izatezko bikotekideak ere helbide aldaketa bera egin badu, markatu "X".
 Si su cónyuge/pareja de hecho también efectúa el mismo cambio de domicilio, marque una "X".

EGOITZA FISKAL BERRIAREN DATUAK / DATOS DEL NUEVO DOMICILIO FISCAL:

KALE EDO PLAZA / CALLE O PLAZA	ZK. / Nº	LETRA / LETRA	ESK. / ESC.	SOL. / PISO	ALDEA / MANO
UDALERRIA / MUNICIPIO	PROBINTZIA / PROVINCIA		POSTA K. / C. POSTAL		

FAMILIA DATUEN ALDAKETAREN JAKINARAZPENA / COMUNICACIÓN DE VARIACIÓN DE DATOS FAMILIARES

Egoera zibilaren aldaketaren zergatia / Cambio de estado civil por:

- Eskontza.
Matrimonio.
- Izatezko bikotea eratzea maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera.
Constitución de pareja de hecho según Ley 2/2003 de 7 de mayo.
- Izatezko bikotea desagitea.
Disolución pareja de hecho.
- Epai bidezko bananketa.
Separación judicial.
- Dibortzioa.
Divorcio.
- Ezkontidearen/izatezko bikotekidearen heriotza.
Fallecimiento de cónyuge/pareja de hecho.

Egoera zibilaren aldaketaren data / Fecha de cambio de estado civil

DOAKIONA EDO ORDEZKARIA INTERESADO O REPRESENTANTE

Data
Fecha

Izenpea
Firma

Izenpetua
Firmado

IFZ
NIF

ERREGISTRO ZIGILUA SELLO REGISTRO

JARRAIBIDEAK**EGOITZA FISKALAREN ALDAKETAREN JAKINARAZPENA:**

- Egoitza fiskala Arabako Lurraldearen barruan aldatu duzula bakarrik jakinarazi nahi baduzu, ez da beharrezkoa inolako egiaztagiririk aurkeztea.
- Zure egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikotik kanpoan aldatu dela jakinarazi nahi baduzu, egoitza berria dagoen udaleko erroldako alta aurkeztu behar duzu.

FAMILIA DATUEN ALDAKETAREN JAKINARAZPENA:

- Ezkontza zibilaren kasuan, familia liburuaren fotokopia aurkeztu beharko duzu.
- Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikotea eratu baduzu, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko izatezko bikotekideen Erregistroan erroldatzeko ebazpenaren fotokopia erantsi beharko duzu.
- Izatezko bikotea desegin baduzu, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko izatezko bikotekideen Erregistroan baja emateko ebazpenaren fotokopia erantsi beharko duzu.
- Epai bidez banandu edo dibortziatu bazara, epaiaren fotokopia aurkeztu beharko duzu.
- Ezkontidea hilez gero, heriotza ziurtagiria aurkeztu beharko duzu.

GARRANTZITSUA

- Doakionari edo bere ezkontideari Arabako Foru Ogasun honen zergapekoen erroldan ALTA emateko denez gero, Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIE) fotokopia aurkeztu beharko da.

LEGEZKO OHARRA

Arabako Foru Aldundiak jakinarazten dizu zuregandik jasotako datu pertsonalak Administrazio honen titulartasunpeko fitxategi automatizatuetan jasoko direla, horrela, Datu Pertsonalen Babesaren gaian indarrean dagoen arautegia betez: izan ere, Administrazio honen helburua da bere ardurapean dituen foru eskumenen arloko kudeaketa lanak eta eginkizunak gauzatzeko. Fitxategi horien berri eman da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroan. Bestalde, fitxategiek datuen erabateko segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak dituzte.

Zure datu pertsonalak ez zaizkie jakinaraziko hirugarren entitateei, Datuen Babeseko Lege Organikoan legez jasotako kasuetan izan ezik.

INSTRUCCIONES**COMUNICACIÓN CAMBIO DE DOMICILIO FISCAL:**

- Si solamente desea notificar el cambio de su domicilio fiscal dentro del Territorio Histórico de Álava no es necesario que aporte ninguna documentación justificativa.
- Si desea comunicar el cambio de su domicilio fiscal fuera del Territorio Histórico de Álava deberá aportar el alta en el padrón del nuevo domicilio.

COMUNICACIÓN DE VARIACIÓN DE DATOS FAMILIARES:

- Si ha contraído matrimonio civil deberá aportar fotocopia del libro de familia.
- Si ha constituido una pareja de hecho según la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, deberá aportar fotocopia de la Resolución de su inscripción en el Registro de parejas de hecho de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Si ha disuelto una pareja de hecho deberá aportar una fotocopia de la Resolución de baja en el Registro de parejas de hecho de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Si se ha separado judicialmente o divorciado deberá aportar fotocopia de la sentencia judicial.
- En caso de fallecimiento del cónyuge/pareja de hecho, deberá aportar certificado de defunción.

IMPORTANTE

- Tratándose de un ALTA del/de la interesado/a o de su cónyuge en el censo de obligados tributarios de esta Hacienda Foral de Álava, se deberá aportar la fotocopia del Documento Nacional de Identidad (DNI) o del Número de Identificación de Extranjero (NIE).

AVISO LEGAL

La Diputación Foral de Álava, en cumplimiento de la normativa de Protección de Datos de Carácter Personal, le informa de que los datos personales que usted nos proporciona serán incluidos en los ficheros automatizados titularidad esta Administración, cuya finalidad es la realización de las funciones y tareas de gestión que le son propias en el ámbito de las competencias forales que tiene atribuidas. Estos ficheros han sido previamente notificados en el Registro de la Agencia Vasca de Protección de Datos y cuentan con las medidas de seguridad necesarias para garantizar la total seguridad de los datos.

Sus datos de carácter personal no serán comunicados a terceras entidades fuera de los supuestos habilitados legalmente por la LOPD.